

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Irene Ezpeleta Urkia

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Irene Ezpeleta Urkia Arrasateko Bedoña auzoan jaio zen 1935ean. Zortzi anai-arrebetan bera erdikoa da. Bedoñan pasa zuen bere haurtzaroa eta eskolak elizan jaso zituen, auzoko abadearekin. Hamabost urterekin Bergarara joan zen neskame bezala lan egitera eta hiru urtez egon eta gero, Arrasatera bueltatu zen Rere ostatuan lan egiteko, baina hura utzi eta berriz neskame moduan jardun zuen. Kontu hauez, gerra garaiaz, goseaz, garai bateko Gabonez eta jai giroaz, etabar. hitz egin du.

Zintak

ARR-192

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-02-17
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bedoñako Etxebarri baserrian jaioa

- **Erref:** ARR-192/002
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:02:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bedoñako Etxebarri baserrian jaio zen. Garai batean 21 bat etxe zeuden. Zortzi anai-arreba dira.

2. Kaleko lehengusuak baserrira jatera, gosea zutelako

- **Erref:** ARR-192/003
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:02:17. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Urtebete zuen gerra hasi zenean baina zerbait gogoratzen du. Etxean, umeei ez zieten ezer kontatzen eta zerbait entzun ezkerok ixilik egoteko esaten zieten. Beldurra zen nagusi. Aretxabaletako lehengusuak beraien baserrira joaten ziren askaltzera, gosea zutelako. Aiton-amonei buruz hitz egiten du

3. Gerra garaian, patatak egunero

- **Erref:** ARR-192/004
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aretxabaletan bizi ziren lehengusuak egunero igotzen ziren baserrira, gosea zutelako. Egundero patatak afaltzen zituzten, era ezberdinetan eginak. Garia, errexisatu egiten zen eta militarrek eraman egiten zuten.

4. Abadea neskatalak ikutzen

- **Erref:** ARR-192/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria

Laburpena:

Bedoñako elizan ibili zen eskolan eta abadea zein maisua. Abadeak neskatalak asko ikutzen zituela kontatzen du. Etxean ez zuten ezer kontatzen.

5. Bergaran neskame

- **Erref:** ARR-192/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:10:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Hamabost urterekin Bedoña utzi eta Bergarara joan zen neskame bezala lan egitera. Etxeko andreak erakutsi zion lan guztia eta oso oroitzen onak ditu. Gerora, semearekin tratua mantendu du.

6. Neskame zeneko kontuak: lanak, soldata, uniformeak...

- **Erref:** ARR-192/008
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame egon zenean, etxeko semearekin tratu oso ona egin zuen. Etxeko lan guztiak egiten zituen. Etxebizitza, erropa, jana... ematen zioten baina soldata baxua zen. Uniformea jazten zuten neskameek eta zerbitzatzen zuten etxeetan bizi ziren.

7. 50eko hamarkada, garai tristeak

- **Erref:** ARR-192/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:18:54. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Umetasun eta gaztaro tristeak gogoratzen ditu Irenek. Garaia tristea zen eta beti beldurraren zeuden.</p>

8. Gaztetan familiartean hika; gaur egun zuka

- **Erref:** ARR-192/011
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Abadeari berorika, neskame egondako familiakoei zuka eta anai-arreben artean gaztetan beti hika. Gurasoek hika egiten zieten eta haiek gurasoei zuka. Hika hitz egiteko ohitura galdu egin da.</p>

9. Santa Eulaliako jaiak Bedoñan

- **Erref:** ARR-192/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:23:26. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Bedoñako jaiak abenduaren 10ean dira, Santa Eulaliak. Gehienetan euria egiten zuela gogoratzen du. Baserrian familiarteko asko biltzen ziren bazkaltzeko. Zer jaten zuten. Bere amak oso paella goxoa prestatzen zuen.

10. Baserrian ez zuten goserik pasatu

- **Erref:** ARR-192/013
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:25:58. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Garai batean, berdina bazkaltzen eta afaltzen zuten egunero: Babak, patatak eta esnea. Igandero, ontza erdi txokolate. Baserrian bizi zirenez ez zuten goserik pasa.

11. Jenero gutxi gerraostean

- **Erref:** ARR-192/014
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:28:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian ez zuten goserik pasa baina beste jende askok bai. Dirurik ez zegoen baina jenero gutxi zegoen ere. Istorio bat kontatzen du.

12. Koartelean janariak elkar-trukatzen

- **Erref:** ARR-192/015
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:28:31. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Arroza, garbantzak, azukrea... dendan topatzea ez zen erreza. Amak, guardia zibilaren koartelean esnea banatzen zuen eta han zegoen emakumearekin trukea egiten zuen: baserriko produktuak errexisatutako gauzengatik (arroza, azukrea...). Marmitan ezkutatzen zituzten elikagaiak.</p>

13. Bedoñatik abarketan jeitsi eta herrian zapatak jantzi

- **Erref:** ARR-192/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:32:20. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Bedoñatik Arrasatera abarkekin jeisten ziren eta gero zapatak janzten zituzten. Hamahiru bat urterekin, Bedoñako 3-4 lagunekin igandero jeisten ziren herrira, buelta bat ematera.

14. Arrasateko Rere ostatuan lanean

- **Erref:** ARR-192/018
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Arrasateko Rere ostatuan lanean egon zen. Taberna eta ostatua zen. Gela batzuk zeuden. Nagusiarekin izandako tirabira bat kontatzen du, enpresa batzuetako ordezkariak uzten zieten eskupekoa nagusiak gordetzen zuelako. Nagusiak ukatu egin zien eta eguerdian lana utzi zuten, taberna bakarrik utzita. Handik, Bergarako beste familia batera joan zen neskame bezala lanera. .

15. Neskame zenean, Gabonak lanean

- **Erref:** ARR-192/021
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:42:36. **Bukatu:** 00:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Gabonetan turroi eta mazapana jaten zuten. Neskame egon zenean ez zen etxera bueltatzen, familiekin ospatzen zuen. Neskame bezala ez zuen inoiz goserik pasatu baina badaki batzuek gosea pasatu zutela.

16. Neskame zegoen familiarekin, Debara udan

- **Erref:** ARR-192/023
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Bergaran Camacho familiarekin neskame zenean, udak Deban pasatzen zituzten eta beste neskame batzuk ere bazeuden. Haietaz hitz egiten du.

17. Arrasateko ReRe taberna, ekonomatoa...

- **Erref:** ARR-192/025
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:50:36. **Bukatu:** 00:51:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Arrasateko Rere taberna eta Zerrajerako ekonomatoa non zeuden.

18. "Pobreak bai, baina tontuak ez!"

- **Erref:** ARR-192/027
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:54:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara joateko aukerarik ez zuen izan eta batzuetan sentitu du beste batzuek ergektzat hartu dutela. "Pobreak bai, baina tontuak" ez zirela esaten du Irenek. Abadearekin ez zuen askorik ikasi.

19. Umetako jolasak eta bihurrikeriak

- **Erref:** ARR-192/028
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:54:58. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasei buruz hitz egiten du. Harri-koxkoka jolasten zuten platertxo apurtuekin. Bihurrikeri bat kontatzen du. Sokasaltoka, gorde-gordeka...ibiltzen ziren, denak batera, neska eta mutil.

20. Errege eguneko opariak

- **Erref:** ARR-192/029
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Errege egunean jasotzen zituzten opariez hitz egiten du. Behin, bere ahizpa txikiari panpin bat oparitu zioten eta anai batek apurtu egin zion aurpegia panpinari. Goxokiak, mazapanak, egurrezko jostailuak izaten zituzten opari bezala.

21. Etxeko giroa: tristezia eta beldurra

- **Erref:** ARR-192/030
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:00:02. **Bukatu:** 01:01:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Umetan, etxean beldurra nabaria zen. Beti ixilik mantentzeko esaten zieten gurasoek, guardia zibila azkar joaten zelako. Guardia zibila auzoko batzuen bila joana zen eta inoiz ez zituzten gehiago ikusten. Giroa tristea zen.

22. Koronabirusaren pandemia

- **Erref:** ARR-192/031
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:01:03. **Bukatu:** 01:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Koronabirusa

Laburpena:

Koronabirusaren pandemiari buruz hitz egiten du eta arma gabeko gerra bat dela uste du Irenek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com